

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 378/2022 Erabakia, ekainaren 21ekoa. Onestea Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren 2022rako enplegu publikoaren eskaintza

Uztailaren 13ko 8/2016 Foru Arauaren bidez, Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoa eratu zen, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzu publikoa kudeatzeko eta emateko, eta Arabako Lurralde Historikoan babes zibilaren eta larrialdien arretaren arloan parte hartzeko.

Foru arau horrek hirugarren xedapen gehigarrian, aurrekontu plantillan, xedatu zuenez, hurrengo ekitaldietan behar ziren plazak sortuko ziren zerbitzua zabaltzeko.

2017tik 2020ra arteko ekitaldietan, zerbitzua Arabako Lurralde Historiko guztian hedatu da eta SISEUen dotazioak osatu dira suteen prebentzio eta itzaltze eta salbamendu zerbitzua egunean 24 orduz eta urteko 365 egunetan eman ahal izateko behar diren langileekin.

Horretarako, aurretik aipatu diren urteetan hainbat hautaketa prozesu egin dira, sarrera librekoak nahiz barne sustapenekoak, erakunde autonomoko lanpostu zerrendan sortutako plazak betetzeko.

Plaza berriak sortzearen nahiz barne sustapeneko prozesuen eta eszedentzien ondorioz, erakunde autonomoan badaude aurrekontu zuzkidura duten postu huts batzuk, enplegu eskaintza publikoaren onespén honen barruan sartu behar direnak.

Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, azaroaren 7ko 16/1997 Legeak emandako idazkeraren arabera, 23.1 artikuluan xedatzen duenez, "Administrazio Publiko bakoitzean dauden langileekin bete ezin diren giza baliabideak, hots, aurrekontu izendapena dutenak, enplegu publikoaren eskaintzan eskainiko dira betetzeko".

Hona hemen zer jasotzen duen Estatuaren 2022rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legeak 20. artikuluan, sektore publikoko langileen lan eskaintza publikoei, kontratuei eta aldi baterako izendapenei buruzkoan:

"Bat. 1. Sektore publikoan harreman mugagabea duten langile sartu berriak sartzeko, aurreko artikuluan Bat.e) paragrafoan jasotako organoak izan ezik, artikulua honetan adierazitako irizpideak aplikatuko dira, eta langileen berritze tasa hauek aplikatuko dira:

A) Lehentasunezko sektoreetan, tasa ehuneko 120koa izango da, eta gainerako sektoreetan, ehuneko 110ekoa".

Artikulu bereko 3. apartatuak lehentasunezko sektoretzat ezartzen du "G) Administrazio publikoak, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuetako langileei dagozkien plazak betetzeari dagokionez".

Artikulu horrek ezartzen ditu 2022ko ekitaldirako langile berriak sartzeko muga eta eskakizunak, betiere dagozkion gastu aurrekontuen I. kapituluko aurrekontu erabilgarritasunen arabera.

Hala ere, erakunde autonomoak ezin baditu lanpostu huts guztiak bete Estatuaren 2022rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen 20. artikuluan ezarritako birjarpen tasaren kargura, lanpostu huts gehienak 2020ko ekitaldian sortu direnez, lege horren hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera, zeinak arau bereziak ezartzen baititu suteen prebentzio eta itzaltze zerbitzuen lanpostuetarako, erakundearen hutsik dauden plaza guztiak eskaini behar dira:

“Lege honen 20. artikuluan eta hamazazpigarren, hemezortzigarren eta hemeretzigarren xedapen gehigarrietan ezarritakoaz gain, tasa gehigarri bat baimentzen da suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuetako langileen lanpostuetarako, baldin eta, aurrekontuetan diruz hornituta egonik, beharrezkoak badira zerbitzu horiek emateari, sortzeari, antolatzeari eta egituratzeari buruzko legezko edo erregelamenduzko aurreikuspenak betetzeko.”

Beraz, Estatuko Aurrekontu Orokorren legeek zorpetze eragiketak baimentzeari dagokionez ezartzen dituzten mugak betetzen direnez edo gairiditzen ez direnez, eta, gainera, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 11.4 artikuluan aipatzen den egonkortasun printzipioa betetzen denez, bai aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioan, bai indarrean dagoen aurrekontuan, bidezkoa da erakundean suhiltzaile-gidariak kategorian hutsik dauden plaza guztiak onestea.

Arabako Foru Sektore Publikoak, Kontuen Europako Sistemari jasotako baldintzetan, betetzen ditu aipatutako aurrekontu legeak zorpetze mailari eta aurrekontu orekari dagokienez ezarritako baldintzak, eta, bestalde, aurrekontu plantillan hutsik dauden plazen deialdiak ez dakar foru administrazioko langile gastua handitzerik; izan ere, foru administrazioak osorik finantzatu baitu orain arte haren kostua, esan dugun bezala.

Ondorioz, ordezkartza sindikaleko erakundeekin negoziazioa egin ondoren, hala xedatzen baitu Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 37.1.l) artikuluan, bidezkoa da onestea Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren enplegu publikoaren eskaintza; bertan, Estatuaren 2022. urterako Aurrekontu Orokorren abenduaren 28ko 22/2021 Legeak 20. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, aurrekontuan diruz hornituta dauden suhiltzaile-gidari kategoriako plaza huts guztiak sartzen dira, kontuan hartuta horien hornidura ezin dela geroratu, prebentzio, su itzaltze eta salbamenduko zerbitzu publikoak behar bezala funtziona dezan.

Ondorioz, ikusi da Kontuhartzailetza eta Kontrol Zerbitzuak aurretiaz emandako baieztok fiskalizazio txostena, 518/2022 zenbakikoa.

Erakunde autonomoko estatutuen 13.2.f) artikulua dioenez, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio erakunde horretako langileen lan baldintzei buruzko proposamenak Foru Gobernu Kontseiluari aurkeztea, onets ditzan. Funtzio publikoaren arloan eskumenak dituen sailarekin koordinatuko da horretarako, eta aldeztatik langileen legezko ordezkariarekin bilduko da dagokion negoziazio mahaian.

Horregatik guztiagatik, Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak adierazitako datan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren 2022. urterako enplegu publikoaren eskaintza, erabaki honen eranskinean jasotzen denari jarraikiz.

Bigarrena. Sartzeko sistema orokorra librea izango da, hautaketa prozeduraren bidez. Oposizio-lehiaketa izango da, eta erakunde autonomoko lehendakariak onesten dituen deialdietan ezarriko dira, uztailaren 13ko 8/2016 Foru Arauaren bidez onetsitako Estatutuen 15. artikuluan xedatutakoarekin bat, deialdietan parte hartzeko baldintzak eta, hala badagokio, euskararen derrigorrezko hizkuntza eskakizuna, eta hura nahitaez bete beharko da sartzeko.

Hirugarrena. Bat etorritik Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 70.1 artikuluan ezarritakoarekin, dagozkion hautaprobak 3 urteko epean egin beharko dira, gehienez ere, erabaki hau EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Laugarrena. Erabaki hau eta bere eranskina ALHAOn argitaratzea, bai eta laburpen bat ere EHAAr.

Bosgarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa jarri ahal izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtoa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean; hori guztia honako hauek xedatutakoaren arabera: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko ekainaren 21ean

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA

ERANSKINA

GIDABAIMENA (*)	TITULAZIO TALDEA	KATEGORIA	SARRERA SISTEMA IREKIA	BARNE SUSTAPENA	DT	GUZTIRA
B0	C2	Suhiltzaile-gidaria	41			41